



ORIOK OUDALA

Euskaraz
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2018ko urriaren 30a, asteartea

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:50

BERTARATUAK:

Alkatea

Jose Angel Zaldua Iparraguirre

Zinegotziak

Angel del Hoyo Bravo, Aitziber Campos Morey, Lourdes Salsamendi Goñi, Elixabete Bello Martija, Emeterio Iribar Sorazu, Bixente Lasa Karrikaburu, Gotzon Igoa Agirrezabal, Aizpea Ubegun Manterola, Jose Angel Iparragirre Alberdi, Iñigo Arruti Agirre eta Ana Priede Merchan.

Idazkaria funtziotan

Ibai Lertxundi Iribar

Eugenio Cotado Iturain zinegotziak (EAJ) adierazi du ezin zuela etorri eta, beraz, ez du bilkuran parte hartu.



Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren 2018ko irailaren 25eko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.
- 2.- Onartzea, egoki bada, ordenantza fiskalen eta beren eranskinen aldaketa, eragina 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izango duena.
- 3.- Onartzea, egoki bada, Oriko Bake Epaitegiko bake-epaile ordezkoa izendatzeko proposamena.
- 4.- Onartzea, egoki bada, Oriko EH Bildu talde politikoak aurkeztutako mozioa, hondartzetako sorospen zerbitzuak Foru Aldundiko kudeaketara pasatzea eskatzeko.
- 5.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN 2018KO IRAILAREN 25EKO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA udalbatzarrak 2018ko irailaren 25ean egindako ohiko bilkurako akta.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORDENANTZA FISKALEN ETA BEREN ERANSKINEN ALDAKETA, ERAGINA 2019KO URTARRILAREN 1ETIK AURRERA IZANGO DUENA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Gaia 2018ko urriaren 5 eta 19ko Ogasun, Pertsonal eta Kalitateko batzorde informatzaileetan diktaminatu da, segidan zehazten den eran:

1.- Diktaminatzen da Izaera Urbanoko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari dagozkion karga-tasak **MANTENTZEA** eta **IGOTZEA**, hurrenez hurren, era honetara:



- % 3,964, zona industrial edo tertziarioetan kokatuta dauden ondasun urbanoetarako.
- % 1,914, gainerako ondasun higiezinatarako.

Guztiz indarrean segituko dute udalbatzarraren 2017ko urriaren 10eko ezohiko bilkuran onartutako familia ugarientzako hobariak eta errekaragoak.

Diktaminatzen da Nekazaritza izaerako ondasun higiezinaren gaineko zergari aplikatzen zaion karga-tasa %1,10ean **MANTENTZEA**.

2.- Diktaminatzen da **EZ IGOTZEA** Orioko jarduera ekonomikoen gaineko zergaren exakzioarako hainbat ahalmen arautzen dituen ordenantza fiskalean ezarritako gutxieneko kuoten gehikuntzarako koefiziente bakarra.

3.- Izaera urbanoko lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zerga-tasa eta urteko portzentajeak **EZ IGOTZEA** diktaminatzen da.

Hobariak mantendu egiten dira.

4.- Diktaminatzen da, orokorrean, %2,2 **IGOTZEA** trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergari aplikagarri zaizkion tarifak eta, bestalde, bere horretan mantentzen dira zerga hori arautzen duen ordenantza fiskalean ezarritako hobariak.

5.- Diktaminatzen da **EZ IGOTZEA** eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergari aplikagarri zaizkion zerga-tasak.

Indarrean segituko dute zerga hori arautzen duen ordenantza fiskalean ezarritako hobari guztiek.

6.- Ondoren zerrendatzen diren tasei aplikatzen zaizkien tarifak **MANTENTZEA** eta **EZ IGOTZEA** diktaminatzen da:

- Udal erabilera publikoko lurretan zangak eta hobiak irekitzea.
- Udal erabilera publikoko lurak okupatzea (ezarritako hobariak indarrean segituko dute).
- Ibilgailuak sartzea espaloian barrena eta bide publikoa erreserbatzea modu eskusiboan aparkatzeko, ibilgailuak geratzeko eta edozein motatako salgaien zamlanerako.
- Indar elektrikoa, ura, gasa edo beste edozein fluido garraiatzeko linea, hoditeri eta galeriak.



- Udal erabilera publikoko lurra okupatzea, mahai, aulki, tribuna, oholtza eta antzeko beste elementuak erabiliz, irabazteko asmoa dagoenean, indarrean eutsiz ezarritako hobariei.
- Bide publikoan kioskoak instalatzea.
- Udal erabilera publikoko lurretan postuak, barrakak, salmenta-guneak, ikuskizunak, atrakzioak eta horrelakoak instalatzea (kaleko industriak, industria ibiltariak eta zinema-filmaketak barne). Horretarako ezarrita dauden hobariei indarrean segituko dute.
- Udak kiroldegiko garajeen erabilera.
- Kultur etxeko aretoen erabilera
- Udalbatzarraren aretoaren erabilera.
- Udaletxeko teilatupeko gelaren erabilera.
- Mendibeltz futbol/sofbol zelaiaren azpiko garajeen erabilera
- Katea (KTA) eraikineko lokalen erabilera
- Salatxo udal aretoaren erabilera.

Orioko Eguneko Zentroan ile-apaindegiko zerbitzuak emateari dagozkion tarifak **IGOTZEA**. Diktaminatutako tarifak hauek dira:

	Euroak
a) Orraztea.....	3,00
b) Garbitzea eta orraztea.....	7,00
c) Eskuz lehortzea.....	7,80
d) Ilea moztea.....	5,60
e) Metxak.....	18,20
f) Permanentea.....	16,00
g) Tindatzea.....	15,30
h) Plisa.....	2,20
i) Bitamina.....	4,20



j) Crema.....	2,20
k) Manikura.....	5,00
l) Bekainak.....	2,20
m) Goiko ezpaina eta kokotsa.....	2,20

Kutxazain automatikoak eta bide publikotik irismena duten salmenta-makinen instalamendu eta funtzionamendua. **MANTENTZEA** diktaminatzen da.

7.- Ondoren zerrendatzen diren tasei aplikatzen zaizkien tarifak **EZ IGOTZEA** diktaminatzen da:

- Bide publikoko lurzoru, lurpea eta hegalkinen erabilera pribatiboa eta aprobetxamendu berezia.
- Auto-taxien eta errentako gainerako ibilgailuen lizentziak eta baimenak ematea.
- Udal administrazioak edo udal agintariek norbaiten eskariz emandako agiriak.
- Lurzoruari eta antolamendu urbanoari buruzko legeek exijitutako lizentzia urbanistikoak ematea.
- Ibilgailuak geraraztea eta bide publikotik erretiratzea.
- Jarduera-lizentzia ematea eta jardueraren eta instalazioaren funtzionamenduari buruzko ikuskapenak egitea.
- Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia ematea.
- Udal pilotalekuaren erabilera eta Orioko Antilla hondartzako kabinen erabilera.
- Txu-txu trenaren erabilera eta publizitate-iragarkiak bertan jartzea.
- Udalaren txosnaren erabilera.
- Udalaren oholtzaren erabilera.
- Udal parrillen erabilera.
- Udal ludotekaren erabilera.
- Azurza Etxeko tutoretzapeko apartamentuen erabilera. Erabiltzaileei aplikatzen zaizkien hobariak indarrean segituko dute; horretarako, diru-sarrera osoak



kontuan hartuko dira (lan errentak eta kapitala) eta ez bakarrik pentsioaren kopurua.

- Udal futbol/softbol zelaiaren erabilera.

Iturriaga jauregian kokatutako Euskal Herriko Done Jakue Bidearen interpretazio-zentroa erabiltzeko tarifak **JAISTEA** diktaminatzen da:

- Helduak: 0,50 euro pertsonako.
- Euskal Herriko museo en sareko kideak, jubilatuek eta haurrak 12 urtetik aurrera: 0,20 euro pertsonako.
- Langabeak eta 12 urtetik beherako haurrak, doan.

8.- Tarifak **MANTENTZEA** diktaminatzen da Trakzio mekanikodun ibilgailuak aparkatzeagatik, horretarako zehaztutako zonatan eta ezarritako mugekin.

9.- Diktaminatzen da tarifak **MANTENTZEA** udal hilerrian zerbitzuak emateagatik eta kontzesioengatik, kontzesiodun enpresa pribatuak udalari kobratuko diona kontuan hartuta. Ordenantza fiskaletan berariaz jaso gabeko zerbitzuetan, erabiltzaileak ordaindu beharko du enpresa adjudikaziodunak zerbitzua emateagatik Udalari kobratzen dion kantidadea bera.

10.- Kontuan hartuta 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera mankomunatu zela zaborrak eta hondakin solido urbanoak biltzeko zerbitzua, aplikatu beharreko tarifak Urola Kostako Udal Elkarteak Batzar Nagusiak ekitaldi ekonomiko bakoitzerako onartzen dituenak izango dira.

11.- Orioko Udal Musika Eskolan 2018-2019 ikasturtean aplikatu beharreko tarifak Orioko udalbatzarrek 2018ko maiatzaren 29an egindako ohiko bilkuran onartutakoak dira (2018ko uztailearen 26ko 144. zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoak).

12.- Udal kanpinaren erabileragatik aplikatu beharreko tarifak Kultura eta Turismo Batzorde Informatzaileak 2018ko irailaren 12an diktaminatutakoak izango dira; batez besteko igoera %2,2koa da.

13.- Udal kiroldegia erabiltzeagatik aplikatu beharreko tarifak Kirol Batzorde informatzaileak 2018ko abuztuaren 2an diktaminatutakoak izango dira, BPXport KIROL ZERBITZUAK enpresa adjudikaziodunak aurkeztutako proposamenaren arabera; batez besteko igoera %3koa da.

14.- Tenis, padel eta squash pistak erabiltzeagatik aplikatu beharreko tarifak Kirol Batzorde informatzaileak 2018ko abuztuaren 2an diktaminatutakoak



izango dira, BPXport KIROL ZERBITZUAK enpresa adjudikaziodunak aurkeztutako proposamenaren arabera; batez besteko igoera %3koa da.

15.- Kontzesioaren enpresa adjudikaziodunak hala proposatuta, Arraunetxeko instalazioak erabiltzeko tarifak egokitzea diktaminatzen da; batez besteko igoera %4,8koa da.

16.- Udal ludotekak emandako zerbitzuak erabiltzeko tarifak bost euro igoko dira zerbitzu bakoitzeko.

17.- Azkenik, honako hiru tributu berriak sortzea diktaminatzen da:

- Etxez etxeko laguntza-zerbitzuari dagokion tarifa: lanegunetan (astelehenetik ostiralera) 15 euro orduko. Larunbat, igande eta jaiegunak: 18 euro orduko.
- Arraunetxeko areto nagusia erabiltzeko tarifa. Kiroldegiko pista ekitaldietarako erabiltzeko kobratzen den tarifa bera aplikatuko da.
- Txu-txu trenaren tarifak: Joatea, etortzea edo joan-etorria egitea: 1,5 euro (3 urtetik beherakoek, doan).

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2018ko urriaren 5 eta 19an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Zaldia (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Campos (EAJ), Salsamendi (EAJ), Bello (EAJ), Arruti (Orain), Iparragirre (Orain) eta Priede (PSE-EE-PSOE), guztira **ZORTZI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Emeterio Iribar (EH Bildu), Lasa (EH Bildu), Igoa (EH Bildu) eta Ubegun (EH Bildu), guztira **LAU KONTRAKO BOTO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Ordenantza Fiskalen Aldaketari eta bere eranskinei, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, erabaki honen azalpenean jasota dauden terminotan.

2.- JENDAURREAN JARTZEA erabaki hau eta hasitako espedientea, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Aginduen 16.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan iragarkiak argitaratuz, arau hauen arabera:

a) Ikusgai dauden tokia: Udaletxeko idazkaritzan.

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, bulego orduetan.



c) Erreklamazioa aurkez dezaketenak: Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluko zerrendan agertzen direnak.

d) Aurkezteko lekua: Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusian. Erreklamazioak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten dituen tokietan.

e) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendaurreko epea amaitu eta erreklamazio edo oharrik aurkezten ez bada, hartutako erabakiak eta aldatutako ordenantzen eranskinak behin betikoak bilakatuko dira, beste erabakirik gabe.

Emandako botoa azaltzeko, Emeterio Iribar Sorazu zinegotziak (EH Bildu) hartzen du hitza, bere taldeak emandako kontrako botoa arrazoitzeko. Adierazten du kontuan hartu behar dela 2015 eta 2018 artean igo egin direla zergak eta tasak. Beren ustez, planteatzen den ondasun higiezinaren gaineko zergaren igoera gehiegizkoa da, beren proposamena %1,5 igoetza baitzen. Kontuan hartzekoa da, baita ere, Gipuzkoako Foru Ogasunak iragarri duen balio katastralen igoera %1,5ekoa izango dela eta horrek ere eragina izango duela herriarregan. Kontuan hartu behar da, baita ere, gure inguruko herriekin alderatuta (Zumaia, Zarautz eta Usurbil), batez bestekoaren gainetik gabiltzala. Bukatzeko, adierazten du txakur arriskutsuen gaineko 125 euroko tarifa gehiegizkoa izan daitekeela eta aztertu egin beharko litzatekeela beste herrietan nola jokatzen duten eta gogoeta egin gaiari buruz.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du kontraesankorra iruditzen zaiola Hondasun Higiezinaren gaineko Zergan %50eko erreklamoak bultzatzea eta, aldi berean, onartu berri den igoeraren kontra agertzea. Txakur arriskutsuak direla-eta onartu den tarifari buruz, berriz, esaten du txakurraren titularrak test psikotekniko bat pasatu behar duela eta aldeztu aurretik jakiten duela zein tarifa ordaindu behar dituen.

Ana Priete Merchán zinegotziak (PSE-EE-PSOE) hartzen du hitza eta honako hau adierazten du: aurten udal-diru-bilketa ona izan denez, espero duela horrek isla izatea datorren urteko udal-aurrekontuan, inbertsio eta zerbitzuei dagokienez.

Jose Angel Iparragirre zinegotziak (ORAIN) hartzen du hitza eta, Ana Priete zinegotziak bezala, adierazten du espero duela diru-bilketa handiago horrek isla zuzena izatea aurrekontuan eta planteatutako diren inbertsioetan. Esaten du, baita ere, poztu dela Arraunetxeko areto nagusia erabiltzeko tarifa berria onartu izanagatik; baina berriro esan nahi duela tarifa hori aztertu egin beharko dela etorkizunean, zenbait batzorde-bileretan dagoeneko adierazi duen bezala.



3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIKO BAKE EPAITEGIKO BAKE-EPAILE ORDEZKOA IZENDATZEKO PROPOSAMENA.

Funtziotako idazkariak irakurri egiten ditu barrutiko Bake Epaitegiko epaile titularra eta epaile ordezkoa aukeratzeko aplikagarriak diren lege-arauak eta irakurtzen ditu, baita ere, horretarako irekitako espedientean gaurko egunera arte ageri diren diligentziak eta jarduerak.

2017ko abenduaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (233. zenbakia) eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratutako iragarkiaren bidez, Orioko Udalak jakinarazi zuen, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 99.etik 103.era arteko artikuluetan eta bake-epaileei buruzko ekainaren 7ko 3/95 Erregelamenduan ezarritakoaren arabera, udalbatzarrari dagokiola pertsonak aukeratzeko bake-epaile titular eta bake-epaile ordezkoko izendatuak izateko; interesa duten pertsonak instantzia aurkeztu behar dute udaletxeko erregistro nagusian, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeitaz eguneko epearen barruan; interesatuek instantzian jaso behar dute exijitutako betebeharrak guztiak betetzen dituztela, eta agiriak aurkeztu beharko dituzte, hori frogatzeko eta ezgaitasunik edo bateraezintasunik ez dutela frogatzeko; hautagaiek erantsi beharko dute, baita ere, txosten labur bat, beren hautagaitzaren egokitasuna arrazoituz eta behar diren xehetasunak emanez hori baloratzeko; behin instantziak aurkezteko epea bukatuta, udalbatzarrak aukeratzeko dituen bake-epaile titularra eta bake-epaile ordezkoa aurkeztu direnen artean, baldin eta legeak ezartzen dituen betebeharrak betetzen badituzte; hautagaitzarik ez balego, udalbatzarrak libreki aukeratzeko dituen, ezarritako prozedurari jarraituz, eta eskumena duen Jurisdikzio Organoari jakinaraziko dio gero.

Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 101.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, udalbatzarraren eskumena da bake-epaile titularra eta bake-epaile ordezkoa aukeratzeko proposamena egitea; erabakia udalbatzarkideen legezkotasunaren gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin hartu behar da (hau da, hamahiru udalbatzarkideen gehiengo absolutuaren aldeko botoekin).

Udalbatzarrak 2018ko irailaren 25eko ohiko bilkuran hartutako erabakiaren arabera, Joseba Gartzia Etxegarai izan zen Orioko Bake Epaitegiko bake-epaile ordezkoko kargurako aukeratzeko eta proposatzeko pertsona; eta pertsona horrek uko egin dio plaza betetzeari Udalari aurkeztutako idatzi baten bidez (sarrerata: 2018ko urriaren 17a; sarrera-zenbakia: 1893).

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasun, Pertsonal eta Kalitateko batzorde informatzaileak 2018ko urriaren 19an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira HAMABI BAIEZKO BOTO; gehiengo absolutua, beraz]:**

1.- ONARTZEA JOSEBA GARTZIA ETXEGARAI Orioko Bake Epaitegiko bake-epaile ordezkoko kargurako izendatzeko proposamenari aurkeztu dion ukoa.



2.- ANE ARRIOLA LARRETA AUKERATU ETA PROPOSATZEA Orioko Bake Epategiko bake-epaile ordezkari kargurako. Hala ere, kargua betetzeko, proposatutako pertsonak espresuki onartu beharko du eta, aldi berean, aitoren bat aurkeztu beharko du, adieraziz ez dagoela sartuta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 102., 302., 303. eta 389. artikuluetan eta bake-epaileei buruzko ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduan aurreikusitako kargu judizialak betetzeko ezgaitasun edo bateraezintasun kausetako batean.

3.- BIDALTZEA udalbatzarraren erabaki honen hitzez hitzezko ziurtapena Euskadiko Justiziako Auzitegi Gorenaren presidenteari, karguak betetzeko proposatutako pertsonen berariazko onarpenekin eta ezgaitasun edo bateraezintasun kausatan sartuta ez daudela dioten aitorenekin batera, dagozkion izendapenak egin ditzan, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101.3 artikulua ezarritakoaren arabera.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO EH BILDU TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, HONDARTZETAKO SOROSPEN ZERBITZUAK FORU ALDUNDIKO KUDEAKETARA PASATZEA ESKATZEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak honela dio, hitzez hitz:

Hondartzetako sorospen zerbitzuak Foru Aldundiko kudeaketara pasatzea eskatzeko

MOZIOA

Jakina da Gipuzkoako hondartzetako sorospen zerbitzuak, beste zenbait zerbitzuekin batera, hondartza horien Udalek ematen eta ordaintzen dituztela. Euren ordaintzen dute erabiltzaile gehienak udalherrikoak ez badira ere, maiz euskal herrikoak edo atzerriarrak. Herri horietariko asko, gainera, txikiak dira, aurrekontu zein finantzabide mugatuak dituzte eta hondartzen mantenuak gastu handi bat suposatzen du horietan biztanleko.

Aurreko guztiagatik EH Bilduk ondorengo mozioa aurkezten du udalbatzarrak aztertu eta hala badagokio onartu dezan;

1.- Orioko Udalak dei egiten dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, hondartzetako sorospen zerbitzua kudeatzen duten udalokin elkarlanean, Gipuzkoako hondartzetako sorospen-zerbitzuak Aldundiko kudeaketara pasa daitezen, behar diren gestioak aurrera eramateko.

2.- Orioko Udalak dei egiten dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, Gipuzkoako hondartzetako sorospen-zerbitzuen kudeaketa aurrera eramateko behar diren kontratu edo/ta hitzarmenetan, Erosketa publiko sozialki arduratsuari buruzko



kontratu klausulak foru sektore publikoko kontratazioan txertatzeko III2014 Foru Araua ezartzeko. Besteak beste, klausula sozialak kontratu zein hitzarmenetan ezarriko direla bermatuz.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA Orioko EH Bildu talde politikoak aurkeztutako mozioa, goian jasota dagoen bezalaxe, hondartzetako sorospen zerbitzuak Foru Aldundiko kudeaketara pasatzea eskatzeko.

Emeterio Iribar Sorazu zinegotziak (EH Bildu) hartzen du hitza eta adierazten du une honetan gaiari buruzko mahai bat dagoela osatuta Gipuzkoako Foru Aldundian eta, kontuan hartuta Orioko sorospen-zerbitzuaren kontratua aurten bukatu dela, Udalak jakin beharko lukeela zein diren mahai horren ondorioak eta, beraz, Aldundiak zer jarrera duen gai honekiko, datorren urteko kontratazioari heldu ahal izateko.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoa bat datorrela eskari horrekin eta behin eta berriz egin zaiola Aldundiari erreklamazio hori. Esaten du, baita ere, zain dagoela ea zer ematen duten ELA sindikatuaren eta Gurutze Gorriaren artean egiten ari diren bilerek, horrek zuzenean eragingo dielako zerbitzua emateko baldintzei.

5.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ana Priede Merchan zinegotziak (PSE-EE-PSOE) hartzen du hitza eta berriro eskatzen du batzorde informatzaileetako bilerak gutxienez hilean behin egitea; batez ere, obra eta zerbitzuetakoa eta hirigintzakoa. Gaur egun hori ez da betetzen eta beharrezkoa da, besteak beste, aurrekontuan exekutatu gabe dauden inbertsioak zehazteko. Adierazten du, baita ere, bere ustez, udal teknikariek ere bat egiten dutela eskari horrekin.

Obra eta zerbitzuetako batzordearen presidente Eugenio Cotado bilkuran ez dagoenez, alkateak hartzen du hitza, aipamenengatik, eta adierazten du batzordeko bilerak diktaminatzeko dauden gaien arabera deitzen direla, erregulartasunez; eta batzordeburuak aldez aurretik ematen diela gaien berri gainerako batzordekideei, jakinaren gainean egoteko.

Ondoren, Herriko Plazan eta Orioko portuan proiektatuta dagoen obrari buruzko eztabaida hasten da. Hirigintza batzordeko kideek diote ondo informatuta egon nahi dutela gaiari buruz, dagozkion diktamenak eman ahal izateko. Alkateak eta Emeterio Iribar zinegotziak (EH Bildu) eztabaidatzen dute obra horiek hasteko eta exekutatzeko epeei buruz eta prozedurari buruz, zeren eta, bi erakunde publiko daudenez



ORIOKUDALA



inplikatuta (Orioko Udalak eta Eusko Jaurlaritza), lankidetzak-hitzarmen bat sinatu behar baita lanaren finantzaketa zehazteko.

Jose Angel Iparragirre zinegotziak (ORAIN) hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoa faltan bilatzen duela batzorde informatzaileetako diktamenei jarraipena egitea; eta, adibide gisa, aipatzen du udal-lokalen erabileraren gaia, zeren eta lokal horiek erabiltzeko baldintzak aztertu egin behar baitira. Adierazten du, baita ere, heldu egin behar zaiola udal futbol-zelaiko belar artifiziala aldatzearen gaiari.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du dagoeneko eginda dagoela udal-lokalen zerrenda eta falta den bakarra dela erabiltzeagatik kobratuko dena zehaztea. Bere talde politikoa udal-lokal horiek doan uztearen aldekoa da, zeren eta, bestela, lokal horien erabiltzaileek Udalaren diru-laguntza jaso beharko baitute.

Angel Del Hoyo zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta adierazten du datorren astean deituko duela hirigintza batzordearen bilera, Herriko Plaza eta Orioko portua berrurbanizatzeko lanei buruzko kontuak eta egon litezkeen bestelakoak diktaminatzeko.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrerak bertaratutako pertsonetako batzuk hitza hartu eta gero (Dikeko Kontzertazio Batzordeak, Orioko Arrantzaleen Kofradiak eta Orioko Udalak sinatu behar duten hitzarmen urbanistikoari buruz galdetu dute; hitzarmen hori tramitatu eta onartzeko epeei buruz egon da eztabaida eta alkateak konpromisoa hartu du gaia ahalik eta azkarren bideratzeko), alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria funtziotan naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,